

# ZEIN DA ZURE EGITEKOA?

# ¿CUÁL ES TU PAPEL?

COVID\_19AREN AURKAKO BORROKAN  
ZU ZARA GAKOA

## #ZEINDAZUREEGITEKOA

## LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

### 1. ENPRESA ANTOLATZAILEA

Sustapen ekintzak Gazteriaren Foru Erakundeak antolatzen ditu (Joaquín José Landázuri kalea 3, 01008 Gasteiz, Araba eta IFZ: P5100001F), gazteak kontzientziatzeko, Covid-19 gaixotasunaren aurkako borrokan ezarritako osasun arauak betetze ditzaten.

### 2. LEHIAKETAREN HELBURUA

Parte hartze hutsak esan nahi du oinarri hauek guztiak osorik onartzen direla; beraz, horiek ez onartzeak parte hartzailea baztertzea ekarriko du eta, horren ondorioz, erakunde antolatzaileak ez ditu parte hartzaile horrekiko betebeharra bete beharko. Saria onartzean, irabazleak bere gain hartuko ditu egiten dituen gastu guztiak, sustapen horretan berariaz jasotakoak izan ezik, bai eta sari hori jasotzearen eta erabiltzearen ondoriozko erantzukizuna ere. Horiek horrela, oinarri hauetan berariaz aipatzen ez diren zerga edo gastu guztien erantzule izango da irabazlea, halakorik izanez gero.

### 3. OINARRIAK ONARTZEA

Parte hartze hutsak esan nahi du oinarri hauek guztiak osorik onartzen direla; beraz, horiek ez onartzeak parte hartzailea baztertzea ekarriko du eta, horren ondorioz, erakunde antolatzaileak ez ditu parte hartzaile horrekiko betebeharra bete beharko. Saria onartzean, irabazleak bere gain hartuko ditu egiten dituen gastu guztiak, sustapen horretan berariaz jasotakoak izan ezik, bai eta sari hori jasotzearen eta erabiltzearen ondoriozko erantzukizuna ere. Horiek horrela, oinarri hauetan berariaz aipatzen ez diren zerga edo gastu guztien erantzule izango da irabazlea, halakorik izanez gero.

### 4. SUSTAPEN EKINTZAREN HASIERA ETA AMAIERA DATAK

Hauek dira sustapenaren hasiera eta amaiera datak: 2020ko uztailaren 6tik 2020ko abuztuaren 3ra. Lehiaketa Info Gaztearen @infogaztea Instagram orrian bertan egingo da, eta Instagram eta YouTube profilen bidez sustatuko da, bai eta <https://cualestupapel.com/eu/> hasiera webgunearen bidez ere, eta legezko oinarri hauek bete beharko dira.

- 2020ko ekainaren 3tik 2020ko abuztuaren 2ra: Hautagaitzak aurkeztea.
- 2020ko abuztuaren 4a: Zozketa parte hartzaile guztien artean.
- 2020ko abuztuaren 4a: Lehiaketaren epaiaren berri ematea irabazleari.

## 5.PARTE HARTZAILEAK

Parte har dezakete, doan eta beren borondatez, 20 urtetik beherako pertsona fisikoek (1999ko abenduaren 31tik aurrera jaiotakoek), baldin eta Instagram sare sozialean erregistratuta badaude eta benetako erabiltzaile bakarra badute eta @infogaztearen jarraitzaile badira. Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu sustatzailearen enplegatuek. Horrelakorik gertatuz gero, erakunde antolatzaileak automatikoki baztertuko ditu parte hartzaile horiek. Parte hartzaileen nortasuna agiri ofizialen bidez egiaztatu beharko da.

Erakunde antolatzaileak ez du bere gain hartuko parte hartzaileek emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizunik, ez eta parte hartzaileekin eta/edo irabazleekin harremanetan jarri ezin badu emandako datuak zuzenak ez direlako edo akatsak dituztelako.

Parte hartzailearen batek zerbait egiteagatik edo ez egiteagatik lehiaketaren funtzionamenduan eragiten badu, sustatzaileak parte hartzaile horiek baztertzeko eskubidea izango du.

Lehiaketa hau ezin bada egin, hautemandako iruzurrengatik, akats teknikoengatik edo sustatzailearen kontrolpean ez dagoen eta sustapenaren garapen normalari eragiten dion beste edozein arrazoiengatik, sustatzaileak lehiaketa bertan behera utzi, aldatu edo eteteko eskubidea izango du. Era berean, sustatzaileak lehiaketaren funtzionamenduaren eta sarien inguruko aldaketak egiteko edo ondoz ondoko eranskinak gehitzeko eskubidea izango du, betiere parte hartzaileei behar bezala jakinarazten badie.

## 6.SARIA

Saria Apple markako telefono mugikor bat da, iPhone 11 modelokoa, 64gb-ko edukiera duena.

Saria jasotzeko sortutako gastu guztiak lehiaketaren irabazleak ordainduko ditu.

Irabazleak jarri beharko du zuzenean harremanetan Gazteriaren Foru Erakundearekin.

Saria aipatutako baino ez da, eta ez da sarian sartzen inolako garraiobiderik. Sustatzaileak ez ditu bere gain hartuko saria jasotzeak dakartzan ondorioak. Sariaren orde ez da dirurik edo bestelako saririk emango. Saria ezin zaie hirugarrenei saldu edo laga.

Irabazleak onartzen du bere datu pertsonalak sustapen ekintza bakoitza antolatzen duen enpresari transferitzea, harekin harremanetan jarri ahal izan daitezen sariaren xehetasun guztiak koordinatzeko.

## 7.SUSTAPENAREN FUNTZIONAMENDUA

Hautagaitzaren lehen egunetik azken egunera arte, @infogaztearen Instagrameko jarraitzaileek lehiaketan parte hartu ahal izango dute sare sozial horren bidez, eta iruzkinetan bi lagun aipatuz. **Parte hartzaile guztiak behar bezala etiketatu behar dute traol hitza postean; Instagramen @infogaztearen jarraitzaile izan behar dute, eta bi lagun aipatu. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaileak Araban erroldatuak egon behar dute.**

## **8.SARIA ESLEITZEA**

Parte hartzeko funtzionamendu baldintzak betetzen dituzten kontu guztiak lehiaketan sartuko dira eta iPhone 11 bat irabazteko aukera izango dute. Parte hartzeko eskakizun guztiak betetzen dituzten kontu guztiak hartuko dute parte zozketan. Zozketa zehaztaperen guztiak betetzen dituzten hautagai guztien artean egingo da, ausaz, sortea2 plataformaren bidez.

Parte hartzaileen artean aukeratzeko hautagai nahikorik ez badago, edo erakunde antolatzaileak barneko beste edozein arrazoï badu, erakunde antolatzaileak lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea izango du.

Hautagaiek baimena ematen dute Instagrameko izena Info Gaztearen sare sozialetan argitaratzeko. Irabazleak lehiaketa honetako arauak beteko ez balitu edo oinarri hauetako epeen barruan aurkitzerik izango ez balitz, eman gabe geratuko litzateke berari legokiokeen saria.

Lehiaketan parte hartzeko profilaren irudietan lehiakideak ezingo du jarri moralaren, etikaren, gustu onaren edo ohorearen aurkako mezurik edo irudirik, ezta jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituenik ere. Gainera, legez kanpoko iruzkin eta irudi oro ez da inola ere lehiaketaren sustatzaileari lotuta geratuko.

## **9.IRABAZLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEA**

Abuztuaren 4an, antolatzailea harremanetan jarriko da irabazlearekin, lehiaketaren irabazlea nor den adierazten duen iruzkin baten bidez. Irabazleak abuztuaren 10eko 15:00ak arte izango du erakunde antolatzailearekin harremanetan jartzeko. Bestela, saria baliogabetu egingo da.

## **10.INSTAGRAMEN LOTURARIK EZA**

Lehiaketaren antolatzailea Gazteriaren Foru Erakundea da, eta Instagramek ez du loturarik lehiaketaren kudeaketarekin eta sustapenarekin. Parte hartzaileek emandako informazio guztia antolatzaileari ematen diote, eta ez sare sozialari.

## **11.JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK**

Erakunde antolatzaileak saritutako lehiakideen izenak eta irudiak erabiltzeko eskubidea izango du, bai eta parte hartzaile guztienak ere, publizitate helburuetan erabiltzeko, egokitzen jotzen dituen komunikabideetan eta berariazko jakinarazpenik egin beharrik gabe.

## **12.DATOS PERTSONALAK**

Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorren eta Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoa buruzko Legearen arabera, parte hartzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi hori konpainia antolatzailearen jabetzakoa da. Datu horiek lehiaketan parte hartzeko ez ezik, erakunde antolatzailearen zerbitzuak ikertzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko ere erabiliko eta tratatuko dira, eta, besteak beste, merkataritza komunikazioak bidaliko dira, baita elektronikoki ere. Nahi izanez gero, parte hartzaileek edozein unetan erabil ditzakete datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta ezerezteko eskubideak, tratamenduaren arduradunari honako helbide elektronikoko honetara idatzita: ifj@araba.eus